

Marisa González

Egikera sortzaile bat

arteko kontrastea zegoela bere artearen oinarrian. Gainera, Lumena sistema grafiko informatikoarekin egin zuen ibilbidea aztertzen dute.

7. aretoa

Guatekin egindako obrak

1977an, Marisa González xarmatuta geratu zen ausaz aurkitu zuen material batekin: lehorgailuaren iragazkian pilatzen den hautsa, berak *lint* edo “guata” deitutakoa. Guatarekin “argi-pinturak” sortu zituen, jatorrizko irudietan esku hartuz, argiaren sarrera erregulatuz eta fotokopiatzeko prozesuan objektuak mugituz.

8. aretoa

Ellas, filipinas proiektua

2000. urtetik aurrera, argazkigintzan jarri zuen arreta, eta bere garaiko errealitate politikoa eta soziala zalantzan jartzeko erabili zuen. *Ellas, filipinas* (2010-2013) proiektuak emakume langile horiek erretiratzen ditu beren atsedeen-egun bakarrean, eta agerian uzten ditu haien lan-baldintza txarrak: lanaldi luzeak, soldata baxuak eta abusuak.

9. aretoa

Nuclear Lemóniz proiektua

Nuclear Lemóniz proiektuak azpiegitura bat desagiteko prozesua dokumentatzen du. Sekula ez zuten abian jarri, herritarrek egindako mobilizazio eta presio sozial biziari esker. Proiektu honetarako, Marisa Gonzálezek bideo-grabazioko ordu luzeak, hamaika argazki-harraldi eta zentralean jasotako makina bat objektu, dokumentu eta material erabili zituen.

10. aretoa


Panificadora

La Fábrica – Harino Panadera 1999-2000 ikus-entzunezko proiektua Harino Panadera desagertu zenean hasi zuen, eta iragan historikora eta memoria kolektibora egindako bidaia bat da. Artistak XX. mendeko arkitektura industrial desegiteko prozesua dokumentatzen du, mende batez Bilboko herritarrei eguneroko ogia eman zien fabrikaren bidez.

11. aretoa

Luminarias instalazioa

Marisa Gonzálezek Harino Panadera-n hartutako lanparetan esku hartu zuen, eta fabrikaren historiaren atal batzuk argitu zituen, esaterako, enpresako Administrazio Kontseiluaren liburuen edukia. Horrekin batera, langileen familia-liburuetako irudiak proiektatzen dira. Langileen izenak eta lanbideak ozen irakurtzen dituen ahotsak lan-esplotazioaren eta antolakuntza patriarkalaren bozgorailu gisa durundatzen du gaur.



hamarkadan material horiek berriz aztertu, eta tresna berriak txertatu zituen, hala nola formatu handiko fotokopiagailua.

4. aretoa

Musika-grafiak

1970eko hamarkadaren amaieran Madrilera itzuli zenean, Espainiako artean, pintura gailendu egiten zen hizkuntza kontzeptual edo teknologikoen aurretik. Testuinguru horretan, Gonzálezek pinturan eta musikan zuen prestakuntza ere erabili zuen bere lanean.

Euskarri tradizionalan egindako pinturatik abiatuta, Sistema Sortzaileekin tratatu eta prozesatutako partituren fotokopiak sartu zituen.

5. aretoa

Estación Fax/Fax Station

1992an, Marisa Gonzálezek *La poética de la tecnología* tailerra eman zuen Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan. Tailer horren barruan, 1993an, *Estación Fax/Fax Station* sortu zuten, faxaren bidez mundu osotik jasotako materialarekin. Lan honek artisten arteko dinamika komunitario eta horizontalago bat sustatzen du, ez hain lehiakorra.

6. aretoa

Lumena sistema eta *Transgénicos* seriea

Areto honetako obrak 1986 eta 2000 bitartean eginda daude, eta Marisa Gonzálezek bakar eta anizkunaren artean lan egiteko zituen hainbat forma islatzen dituzte. Era berean, erakusten dute,aldi horretan, bizidunaren eta bizigabearen

Egikera sortzaile bat erakusketak 1943an Bilbon jaiotako artista honen ibilbidea errepasatzen du, aitzindaria izan baitzen Espainian sorkuntza artistikoa eta irudien komunikazioko eta erreprodukzioko teknologiak uztartzen. Arte bisualen barruan beti, fotokopiagailuekin, fotografiarekin, bideoarekin eta ordenagailuarekin lan egiten du. 2023an Arteen Velázquez Saria lortu zuen, eta 81 urterekin bere lan zehatza egiten jarraitzen du.

Violeta Janeiro Alfrageme arte historialari eta ikertzaileak komisariatutako antologiko honek artistaren bost hamarkadako ekoizpena biltzen du eta bere serie eta proiektu handien zati handi bat erakusten du.

Marisa Gonzálezek egikera beti izan da sortzailea, ez erreplikatiboa. Hasieratik, artistak uko egin zion ohiko baliabideetara eta ezarritako diziplina-egituretara egokitzeari, eta makinak erabili zituen tresna artistiko gisa —koloretako fotokopiagailuak, termofaxak eta garai hartan abangoardia teknologikoa ziren beste gailu batzuk—. Hautu hori ez zen lilura teknikoaren ondorioa izan, baizik eta baliabide horiek sormen-arloan zituzten aukerak aztertzeko borondatea, betiere froga eta berehalakotasunetik abiatuz eta zoria eta akatsa onartuz.

Ibilbidean barrena, Gonzálezentzat makina eta teknologia baliabide bat izan dira orainaz era kritikoan pentsatzeko. Gailu teknologiko bakoitzaren bidez, Marisak bide alternatiboak aurkitu ditu kontatzeko eta errealitatea irudikatzeko, eta irudiak eta prozesuak sortu ditu, tresnak aurrez zituen erabilerak gaindituz.

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok laguntza ematen du Reina Sofía Arte Zentro Museo Nazionalaren proiektu honen ekoizpenean. Maiatza eta iraila bitartean Madrilgo museoan egon da ikusgai. Ibilbidearen bigarren tarte honetan, handitu egin da erakusketa eta artistaren proiektu enblematikoenetako batzuk nabarmendu dira, bertako testuinguruari lotuta. Horrela, ohiko obrez gain, *Nuclear Lemóniz* eta *La Fábrica – Harino Panadera 1999-2000* proiektuen zati bat dago ikusgai. Biek ala biek biltzen dituzte artistak industriaren ikuspegitik zuen begirada eta artearen eta teknologiaren aitzindari gisa nekatzeke egin zuen lana.

1. aretoa

Erakusketaren sarrera

1967an, Marisa González Madrilera joan zen bizitzera, eta Arte Ederretan lizentziatu zen. Hain konbentzionalak eta zurrunak ez ziren bideak bilatuz, baliabide sortzaile berriak esploratzeari ekin zion.

Makinekin lan egiteak sortzen zituen materialei eta azpiproduktuei erreparatu zien, eta matrize-paperak, inprimatze-probak eta paper termosentikorra sartu zituen bere obran.

2. aretoa

Sistema sortzaileen obrak

1971n, Chicagoko Art Institute-ren eskolako “Sistema Sortzaileak: Artea, Zientzia eta Teknologia” masterra egin

zuen Estatu Batuetan. Sonia Sheridan-ek emandako master horrek behin betiko markatu zuen bere ibilbidea.

Bere lanek erreprodukzio- eta alterazio-prozesu ugari izaten zituzten, gardenkiak, manipulaturako paperak eta etxeko tresnak uztartuz, ehundura, kolore eta efektu bisual berriak lortzeko.

3. aretoa

Feminismoei buruz

AEBn, Marisa González harremanetan jarri zen mugimendu feministekin, bakezaleekin eta eskubide zibilen aldeko taldeekin. Esparru horretakoa da *Maternidad* (1974-75) serie enblematikoa, agerian jartzen baitu nola baldintzatzen duten diskurtso erlijioso, mediko eta juridikoek emakumearen gorputza. 1990eko

Marisa González

Arte Plastikoen Velázquez Saria jaso zuen 2023an, multimedia artista gisa egindako ibilbide luzeagatik. Marisa González aitzindaria izan da teknologia berriak erabiltzen 1970eko hamarkadatik gaur egun arte.

Bilbon jaio zen 1943an, eta Madrilen bizi da. Pianoko Goi Mailako ikasketak egin zituen Bilboko Kontserbatorioan, Arte Ederretan lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Arte Ederretako Fakultatean (1971), masterra egin zuen Chicagoko Art Institute-n, Sistema Sortzaileen Sailean (1973), eta BFA Corcoran School of Art-en (Washington D.C.) (1976).

Feminismoa, memoria eta arkeologia industrialia, birziklapena eta ekologia, eta bazterketa- eta prekarietate-prozesuekiko arreta dira Gonzálezen ibilbidean nabarmentzen diren beste bereizgarri batzuk.

Hainbat museotan eta bildumatan ditu artelanak, eta banakako 60 erakusketa baino gehiago eta 150 erakusketa kolektibotik gora egin ditu, besteak beste, Veneziako Bienalean, Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionalan, Tabacalera (Madril) eta Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroan (CCCB). Hainbat argitalpenetan aipatu izan dute erreferente gisa, hala nola Jorge Luis Marzoren *Arte en España* (1939-2015) eta Patricia Mayayoren *La fotografía en España. De los orígenes al siglo XXI* izeneko lanetan.

Violeta Janeiro Alfageme

Violeta Janeiro Alfageme (Vigo, 1982) doktorea da Artearen Historian Santiagoko Unibertsitatetik. Bere lanaren oinarrian, batetik, Espainiako diktaduraren kontrako erresistentzian zeuden emakumeen mugimenduen oroimena dago eta, bestetik, esparru publikoan eragina zuten elkarlaneko, komunitateko eta prozesuetako praktika artistikoak. Erakusketen baterako komisarioa izan da Madrilgo Reina Sofía Arte Zentroan eta CA2Mn; Mexikoko MUACen; Vigoko MARCON, eta Hannover-eko Kubus eta Madrilgo Matadero proiektuetan.

SARRERAKO BISITAK


Sarrera librea aldez aurretik izena emanda Euskaraz eta gaztelaniaz




AUDIOGIDAK



IG 01212-2025



Liz Williams y sus máscaras (Violencia mujer seneia), 1975-1976



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO